

ERABAKIA, 2021eko martxoaren 24koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, 2020ko abenduaren 22ko Gerentearen erabaki bidez, epaia betetzeko, "Gestioko Teknikaria (Ingurumena)" izeneko lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin-behineko zerrenda onartzeko.

Gerentearen 2020ko abenduaren 22ko erabaki bidez "Gestioko Teknikaria (Ingurumena)" izeneko lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesua deitu zen, epaia betetzeko, eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

Laugarren oinarriko lehenengo atalean zehaztutakoari jarraiki, UPV/EHUko gerenteak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko erabakia emango du, baztertutakoen kasuan, kanpoan uzteko zioa azalduta.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- "Gestioko Teknikaria (Ingurumena)" izeneko lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko erantsitako zerrenda onartzea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian (<http://www.ehu.eus/eu/web/azp/deialdiak>) argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena.- 4.1 oinarri orokorrean zehaztutakoaren arabera, bost egun balioduneko epea ezartzea onartutakoen eta baztertutakoen zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko, edo, hala dagokionean, baztertzea eragin duen arrazoia zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan baztertzea – edo, hala dagokionean, zerrendetako batean ere ez agertzea – eragin duen akatsa egiaztagiri bidez zuzentzen ez duten hautagaiak onartutakoen zerrendan sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

Leioan, 2021eko martxoaren 24an

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

